


DISOLUZIO MOTA SOLUTUAREN KANTITATEAREN ARABERA


Demagun solutua koloreduna dela:

Disoluzio DILUITUA: oso solutu gutxi du eta erabat disolbatuta. Disoluzioan fase bakarra eta kolore argia ikusiko dugu. Jarraitzen badugu solutua botatzen,

Disoluzio KONTZENTRATUA: solutu dezente du baina erabat disolbatuta. Disoluzioan fase bakarra eta kolore ilunagoa ikusiko dugu. Jarraitzen badugu solutua botatzen,



Disoluzio ASEAK : solutu kantitate maximoa dago disolbatuta. Disolbatzaileak ez du onartzen solutu gehiago. Disoluzioan fase bakarra eta kolore aurrekoaren baino ilunagoa ikusiko dugu.
*Botatzen badugu solutu pittin bat gehiago hauspeakina (solidoa disolbatu gabe) agertuko da eta ontzian bi fase bereiztuko ditugu likidoa (disoluzio asea) eta disolbatu gabeko solidoa (hauspeakina)



HAUSPEAKINA
SOLIDOA DISOLBATU GABE